

## **GIZARTE EKIMENEN IKASTETXEEN AZKEN BATZORDEEI ETA NEGOZIAZIO MAHAIRI BURUZKO INFORMAZIOA**

### **BEKEN BATZORDEA**

Irailaren 27an beken batzordea bildu zen. Iraileko lehen hamabostaldian jasotako aldaketak eta ezeztapenak aztertu ziren. Datu horiekin, berriz kalkulatzen ari dira beken ehunekoak aldaketek eragin izan duten ikastetxeetan. Datorren astean, hitzarmena sinatu genuen sindikatuok eta patronalek zerrenda berriak sinatu eta zigilatuko ditugu. Beka eskatu baduzu eta dagokizun portzentaiari buruzko zalantzarik baduzu, jar zaitez harremanetan STEILASekin urriaren 13tik aurrera.

### **BIRKOKAPEN BATZORDEA**

Beste urte batez, aurreko ikasturtearen amaieran, ikasgelak edo ikastetxeak ixteagatik lanpostua galdu duten gizarte-ekimeneko ikastetxeetako langileak birkokatze prozesua jarri zen abian. Irailaren 29an, Birkokatze Batzordea bildu zen, aurtengo udako prozesua baloratzeko. Aurten poltsan sartu diren pertsonen % 80k aukera izan dute kontratu mugagabe batekin sektoreko beste ikastetxe batean lan egiteko. Lehendik poltsan zeuden pertsona batzuk ere birkokatu ahal izan dira.

STEILASek oso positibotzat jo du birkokatze-prozesua, eta eskerrak eman nahi dizkie ordezkariak ikastetxeetako batzordeetan parte hartzeagatik; izan ere, batzorde horiek jakinarazten diote Birkokapen Batzordeari zer lanpostu huts erabiltzen diren birkokatzeak.

Bileran STEILASek Birkokapen Batzordeak Hezkuntza Sailarekin bilera bat eska zezala proposatu zuen, Administrazioarekin akordio berri bat lortzeko eta ikastetxeek jasotzen dituzten diru-laguntzei legezko babesa eta gardentasuna emateko, hain zuzen ere. Hezkuntza Sailak ez zuen 2021eko abuztuaren 31ra arte indarrean zegoen akordioa luzatu, egingo zuela ziurtatu zigun arren. Urtebete igaro da, Hezkuntza Sailak ez du akordio-proposamenik egin, eta STEILASek argi dauka ikasturte honetarako diru-laguntzen aginduak ez duela berme nahikorik ematen. Kristau Eskolak eta AICEK ez zuten gure proposamena onartu, baina akordio berri bat exijitzen jarraituko dugu.

Akordioarekin edo akordiorik gabe, gogoratu behar da ikasgelak ixteagatik lanpostua galtzen duten gizarte-ekimeneko ikastetxeetako langileek birkokatze eskubidea dutela, indarrean dagoen hitzarmenaren 76. artikulua hala jasotzen baitu.

### **HITZARMENA NEGOZIATZEKO MAHAIA**

Joan den irailaren 13ko Gizarte Ekimeneko hitzarmen berriaren negoziatio-mahaian urrian eta azaroan hiru Negoziozko Mahaia gehiago egiteko egutegia adostu genuen, eta patronalek kontraproposamena hirugarren bileran aurkezteko konpromisoa hartu zuten.

Atzo, urriak 4, hiru bilera horietatik lehena izan genuen, eta STEILASek berriro mahaia gainean jarri zituen hitzarmen berrirako bere aldarrikapenak, 1., 2. eta 3. tituluetan. Gainerako sindikatuak ere bereak azaldu zituzten, eta patronalek, nahiz eta ekainetik ezagutu, entzun eta gai gehienetan beren kontraproposamena hirugarren bileran aurkezteko konpromisoa berretsi zuten.

Hurrengo bileran dinamika horrekin jarraituko dugu. Hirugarrenean, Kristau Eskolak eta AICEK negoziatioa eta posizionamenduak hurbiltzea ahalbidetuko duen proposamen batekin etorri behar dute. Orain arte, iragarri dugun bezala "ez negoziatio" fasean jarraitzen dugu, prozesua luzatzeko estrategia patronalean.

## **INFORMACIÓN SOBRE LAS ÚLTIMAS COMISIONES Y LA MESA DE NEGOCIACIÓN DE CENTROS DE INICIATIVA SOCIAL**

### **COMISIÓN DE BECAS**

El 27 de septiembre se reunió la comisión de becas. Se analizaron las modificaciones y cancelaciones recibidas durante la primera quincena de septiembre. Con estos datos se están recalculando los porcentajes de becas en los centros afectados por los cambios. La semana que viene, los sindicatos y las patronales firmantes del convenio firmaremos y sellaremos los nuevos listados. Si solicitaste la beca y tienes alguna duda sobre el porcentaje que te corresponde ponte en contacto con STEILAS a partir del día 13 de octubre.

### **COMISIÓN DE RECOLOCACIÓN**

Un año más, a finales del curso pasado, se puso en marcha el proceso de recolocación del personal de los centros de Iniciativa Social que han perdido su puesto de trabajo por cierre de aulas o de centros. El pasado 29 de septiembre se reunió la Comisión de Recolocación con el objetivo de valorar el proceso de este verano. El 80% de la personas que han entrado este año a la bolsa han tenido la posibilidad de recolocarse con un contrato indefinido en otro centro del sector. También han podido recolocarse algunas de las personas que ya estaban en la bolsa anteriormente.

STEILAS valora muy positivamente el proceso de recolocación y quiere agradecer a las personas delegadas su implicación en la comisiones de centro que son las que comunican a la Comisión las vacantes que se utilizan para la recolocación.

Durante la reunión STEILAS propuso que la Comisión de Recolocación solicite una reunión con el Departamento de Educación con el objetivo de lograr un nuevo acuerdo con la Administración que de apoyo legal y transparencia a las ayudas económicas que reciben los centros. El Departamento no prorrogó el acuerdo que estaba vigente hasta el 31 de agosto de 2021 a pesar de que nos había asegurado que lo iba a hacer. Ha pasado un año, no hay una propuesta de acuerdo por parte del Departamento y STEILAS tiene claro que la orden de ayudas para este curso no es garantista. Kristau Eskola y AICE no aceptaron nuestra propuesta, pero seguiremos exigiendo un nuevo acuerdo sea como sea.

Con acuerdo o sin él, hay que recordar que el personal de los Centros de Iniciativa Social que pierda su puesto de trabajo por cierre de aulas tiene derecho a la recolocación porque así lo recoge el artículo 76 del convenio vigente.

### **MESA DE NEGOCIACIÓN DEL CONVENIO**

En la mesa de negociación del nuevo convenio de Iniciativa Social del pasado 13 de septiembre, acordamos un calendario de tres Mesas de Negociación más durante los meses de octubre y noviembre con el compromiso por parte de las Patronales de presentar su contrapropuesta en la tercera reunión.

Ayer, 4 de octubre, tuvimos la primera de esas tres reuniones y STEILAS puso de nuevo encima de la mesa cuáles son sus propuestas para el nuevo convenio en los títulos 1,2 y 3. El resto de los sindicatos también explicaron sus propuestas y las patronales, que ya las conocen desde junio, escucharon y en la mayor parte de los temas se limitaron a refrendar su compromiso de presentar su propuesta en la tercera reunión.

En la próxima reunión continuaremos con esta dinámica. En la tercera, Kristau Eskola y AICE tienen que venir con una propuesta que permita la negociación, el acercamiento de las posturas. Hasta ahora, como ya anunciamos seguimos en la "no negociación", en la estrategia patronal de alargar el proceso.